

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko uztailaren 22tik 26rako astea

---


## ➤ INGURU MAKROA:

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ ASTE HONETAN MERKATUETAN

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: PMIak



### Datuaren analisisia


PMIek beheranzko bilakaera izan zuten Eurogunean, hazkundearen ahultzearekin bat datorrena. Manufaktura sektoreak zerikusi handia dauka EDBko ekonomiaren moteltzean, eta Alemaniako indizea nabarmentzen da bereziki, 45etik 43,1era jaitsi zena (minimoa 2012tik). Albiste positiboa zerbitzuen sektoretik etorri zen berriro, nolabaiteko egonkortasuna erakustez gain, 50eko mailatik gora kokatu baitzen.

### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: IFO ALEMANA



### Datuaren analisisia

Denon harridurarako, uztaleko IFOak 1,8 puntu egin zituen behera, 95,7raino, merkatuko aurreikuspenen azpitik; 2013ko apiriletik ikusten ez zen minimoa. Gaur egungo egoeraren inguruan enpresek duten pertzepzioa 100 puntuen azpitik kokatu zen lehen aldiz hamar urtetan. Halaber, hurrengo 6 hilabeteetarako aurreikuspenak ere ezkorrak izan ziren.

### Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jarduera ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: EBZ-REN BILERA



#### Datuaren analisisia


EBZk interes-tasak aldatu ez bazituen ere, etorkizunean esku-hartzeak egiteko atea irekita utzi zuen bere jakinarazpenean. Horrez gain, argi utzi zuen diru-politika are malguago batera hurbiltzen ari dela EDB, eta tasak jaitsi eta aktiboen erosketak berraktibatu dezakeela, besteak beste. Bestalde, EBZko hainbat kide inflazio-helburua birpentsatzen egon litezkeela jakin zen, eta Draghi berak aditzera eman zuen % 2a ez dela sabaia inflazioarentzat.

#### Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 estatu kideen diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

**AEB: BPGd**



### Datuaren analisia


Lehenengo aurreikuspenean, BPGd-aren hazkunde urtekotua % 2,1ekoa izan zen apirila eta ekaina bitartean, aurreko hiruhilekoan eskuratutako % 3,2aren aldean. Inbentarioak eta balantza komertziala izan ziren BPGd-aren hazkundera beherantz eraman zuten bi aldagaiak. Nolanahi ere, datua espero (% 1,8) baino hobea izan zen, kontsumoak eta gastu publikoak egindako ekarpen handiari esker.

### Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: PMI



### Datuaren analisisia

Japoniako PMiek ezusteko ederra eman zuten, hala zerbitzuen sektorean nola manufakturen sektorean. PMI manufaktura-indizeak 49,6 puntu lortu zituen (esperotako 49,3aren aldean), eta zerbitzuenak 52,3 (esperotako 51,9aren aldean). Hala ere, adierazle aurreratu honen arabera, industria-sektoreak uzkuertze-egoeran jarraituko du oraindik.

### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erorketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

| Data  | Eremua         | Adierazlea                                       | Aurreik. |
|-------|----------------|--------------------------------------------------|----------|
| 07/29 | Japonia        | Urte arteko xehekako salmentak                   | % 0.2    |
| 07/29 | Espainia       | Urte arteko KPIa                                 | % 0.6    |
| 07/29 | Espainia       | Urte arteko xehekako salmentak                   | --       |
| 07/29 | Estatu Batuak  | Manuf. jarduera Fed Dallas                       | -5.0     |
| 07/30 | Japonia        | Langabezia                                       | % 2.4    |
| 07/30 | Japonia        | Urte arteko industria-ekoizpena                  | -% 2.0   |
| 07/30 | Frantzia       | Urte arteko BPGd                                 | % 1.4    |
| 07/30 | Alemania       | Kontsumitzailearen konfiantza GfK                | 9.7      |
| 07/30 | Eurogunea      | Konfiantza ekonomikoa                            | 102.6    |
| 07/30 | Eurogunea      | Kontsumitzailearen konfiantza                    | -6.6     |
| 07/30 | Alemania       | Urte arteko KPIa                                 | % 1.5    |
| 07/30 | Estatu Batuak  | Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak   | % 0.4    |
| 07/30 | Estatu Batuak  | Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza | 125.0    |
| 07/30 | Japonia        | BOJen politikaren oreka mota                     | -% 0.100 |
| 07/31 | Erresuma Batua | Kontsumitzailearen konfiantza GfK                | -13      |
| 07/31 | Txina          | PMI Composite                                    | --       |
| 07/31 | Txina          | Fabrikazioaren PMIa                              | 49.6     |
| 07/31 | Txina          | Ez fabrikazioaren PMIa                           | 54.0     |
| 07/31 | Japonia        | Kontsumitzailearen konfiantza-indizea            | 38.4     |
| 07/31 | Alemania       | SA YoY xehekako salmentak                        | % 0.0    |
| 07/31 | Frantzia       | Urte arteko KPIa                                 | % 1.1    |
| 07/31 | Espainia       | Urte arteko BPGd                                 | % 2.3    |
| 07/31 | Eurogunea      | Langabezia-tasa                                  | % 7.5    |
| 07/31 | Eurogunea      | Urte arteko BPGd SA                              | % 1.0    |
| 07/31 | Estatu Batuak  | ADP Enplegu aldaketa                             | 150k     |
| 07/31 | Estatu Batuak  | Tasen erabakia Erreserba Federala                | % 2.00   |
| 08/01 | Txina          | Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa               | 49.5     |
| 08/01 | Espainia       | Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa            | 48.0     |
| 08/01 | Frantzia       | Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa            | 50.0     |
| 08/01 | Alemania       | Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa         | 43.1     |
| 08/01 | Eurogunea      | Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa            | 46.4     |
| 08/01 | Erresuma Batua | Markit, RU Saren PMI fabrikazioa                 | 47.6     |
| 08/01 | Erresuma Batua | Banku-tasa Ingalaterrako Bankua                  | % 0.750  |
| 08/01 | Estatu Batuak  | Hasierako langabezia-eskaerak                    | 212k     |
| 08/01 | Estatu Batuak  | Markit AEB fabrikazioa PMI                       | --       |
| 08/01 | Estatu Batuak  | ISM manufaktura-indizea                          | 52.0     |
| 08/02 | Eurogunea      | Urte arteko xehekako salmentak                   | % 1.3    |
| 08/02 | Estatu Batuak  | Langabezia-tasa                                  | % 3.7    |
| 08/02 | Estatu Batuak  | Balantza komertziala                             | -\$54.6b |
| 08/02 | Estatu Batuak  | Ondasun iraunkorren aginduak                     | --       |
| 08/02 | Estatu Batuak  | Oraingo egoera Mich. U.                          | --       |
| 08/02 | Estatu Batuak  | Aukerak Mich. U.                                 | --       |



## BURTSA:

Burtsako indizeen balantzea positiboa izan zen astearen bukaeran AEBetan, Europan eta Asian. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, berriz, burtsek atzera egin zuten. Aste honetan, EBZren bilerak eta enpresen emaitzek erakarri zuten merkatuen arreta, egoera komertziala alde batera utzi gabe. Argitaratutako datu makroak ahulak izanagatik ere (PMIak, IFO...), EBZk ez zuen neurri zehatzik hartu joan den ostegunean. Haatik, bere mezua aldatu zuen, eta tasak murrizteko atea irekita utzi zuen irailerako, baita pizgarrien sorta berri bat martxan jartzeko ere, aktiboen erosketen berraktibatzea barne har lezakeena. Draghik, beraz, oso argi utzi zuen EDB diru-politika are malguago batera hurbiltzen ari dela. Dagoeneko Ipar Amerikako eta Europako enpresen heren batek argitaratu ditu emaitza korporatiboak. Bada, urte hasieratik aurreikuspenak beherantz berrikusi baziren ere, argitaratutako emaitzek aurreikuspenak gainditu dituzte; enpresa estatubatuarren % 78k eta europarren % 61ek. Akzio bakoitzeko etekina % 7 hazi zen AEBetan, eta % 1 Europan. Arlo komertzialean, AEBetako merkataritza gaietarako ordezkaria Shanghaira joango da asteon, funtzionario txinatarrekin biltzeko. Elkarriketa hauek seinale ona dira bi potentzien arteko borroka komertziala konpontze aldera. Lurralde nazionalen, bestalde, Kongresuak adierazi zuen Podemos eta PSOEren arteko akordio faltagatik ezin zela gobernu berria osatu.

## ERRENTA FINKOA:

Burtsaren tonu onagatik ere, tasen murrizketa txiki bat izan genuen Europan, eta diferentziales pixka bat gora egin zuten periferikoetan. Bada, hamar urterako bonu alemanaren errentagarritasuna -5 op jaitsi zen, -% 0,38raino. Zor espainiarrari dagokionez, hamar urterako bonuari eskatutako errentagarritasunak -2 op egin zuen behera (% 0,37raino), eta arrisku-prima 75 punturaino heldu zen. AEBetan, tasek pixka bat gora egin zuten, eta 10 urterako tasa % 2,07an amaitu zuen astea. Kredituak, bestalde, diferentzialak pixka bat estutu zituen.

## DIBISAK / LEHENGAIK:

Nahiz eta garrantzi handiko aldaketarik gabe, euroak balioa galdu zuen dolarraren aurrean, EBZren neurri faltagatik eta Fed-ek iragarritako tasen murrizketagatik. Liberak ez zuen ia mugimendurik izan euroaren aurrean. Erresuma Batuan, alderdi kontserbadoreak Boris Johnson aukeratu zuen lehen ministro britainiar berria izateko. Brexita «bai ala bai» datorren urriaren 31n gertatuko dela adierazi zuen, eta bere kabinetea osatuko duten lehenengo batzarkideak izendatu zituen; Europar Batasunetik akordiorik gabe ateratzearen aldekoiei eman die kargurik garrantzitsuenak. Lehengaietan, petrolioaren prezioak % 0,90 egin zuen gora, Iranekin izandako tentsio jarraituen ondorioz, eta AEBetako erreserben jaitsiera espero baino handiagoa izan zelako. Eskari global ahulago baten aurreikuspenak igoerak handiagoak izatea eragotzi zuen.

| INDIZEAK            | PREZIOA    | % Aldaketa Astean | Ald. % 2019 |
|---------------------|------------|-------------------|-------------|
| MSCI WORLD (Local)  | 1.701,89   | 1,31              | 18,07       |
| IBEX 35             | 9.225,50   | 0,60              | 8,03        |
| DJ EURO STOXX 50    | 3.524,47   | 1,27              | 17,43       |
| DJ STOXX 50         | 3.212,90   | 0,82              | 16,41       |
| FTSE                | 7.549,06   | 0,54              | 12,20       |
| S&P 500             | 3.025,86   | 1,65              | 20,70       |
| Dow Jones           | 27.192,45  | 0,14              | 16,57       |
| NASDAQ              | 8.330,21   | 2,26              | 25,54       |
| NIKKEI 225          | 21.658,15  | 0,89              | 8,21        |
| MSCI GORAKORRAK (Lo | 57.917,80  | -0,35             | 8,42        |
| MEXBOL              | 40.673,78  | -2,24             | -2,32       |
| BOVESPA             | 102.818,90 | -0,61             | 16,99       |
| SHANGHAI            | 3.084,19   | 0,70              | 18,11       |
| Errusia Rts Mosku   | 1.348,30   | -0,18             | 26,16       |

| Gobernuen tasak             | Maila  | Aldaketa Astean | Ald 2019 |
|-----------------------------|--------|-----------------|----------|
| ALEMANIA 2 URTE             | -0,75  | 0,02            | -0,14    |
| ESPAINIA 2 URTE             | -0,51  | -0,02           | -0,27    |
| AEB 2 URTE                  | 1,85   | 0,03            | -0,64    |
| ALEMANIA 10 URTE            | -0,38  | -0,05           | -0,62    |
| ESPAINIA 10 URTE            | 0,37   | -0,02           | -1,04    |
| AEB 10 URTE                 | 2,07   | 0,02            | -0,61    |
| ALEMANIA 30 URTE            | 0,21   | -0,06           | -0,67    |
| ESPAINIA 30 URTE            | 1,37   | -0,01           | -1,24    |
| AEB 30 URTE                 | 2,59   | 0,01            | -0,42    |
| Kreditu-spreada (op)        |        |                 |          |
| MARKIT ITRX EUROPE 06/24*   | 47,15  | -2,07           | -41,22   |
| MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24 | 241,59 | -11,00          | -112,09  |

| Dibisak         | Maila  | %Aldaketa Astean | % Ald 2019 |
|-----------------|--------|------------------|------------|
| Dolarra / Euroa | 1,11   | -0,84            | -2,97      |
| Yena / Euroa    | 120,92 | 0,04             | -3,80      |
| Libera / Euroa  | 0,90   | 0,15             | -0,03      |

| Lehengaiak        | Maila    | %Aldaketa Astean | % Ald 2019 |
|-------------------|----------|------------------|------------|
| Petrolio (Brendt) | 62,87    | 0,90             | 18,24      |
| Urrea             | 1.418,80 | -0,46            | 10,63      |



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.